

ALTERNATIBAREN HIRU ERRONKA ESTRATEGIKOAK

Euskal Herriko ezker eraldatzailea osatzeko paradigma berrian aurrera egiteko oinarriak

Alternatibak, 2008ko abenduan jaiotzen zenetik, ezkerrearen bi ikuspegi lotuko zituen espazio politikoa sortzen saiatu da. Batetik, *borrokarako ezkerre*, ekintzailea, militantea, kalekoa; eta bestetik *hausnarketarako ezkerre*, analisirako, sakonki autokritikoa eta bere proiektuaren definizioa inoiz erabat bukatutzat ematen ez duena.

Bide honetan, Alternatiba ez zaio entzungor izan kapitalismoaren ahitzeak ekarritako sistema krisi egoerari; langabeei, langileei eta pentsionistei egindako erasoerak; Espainiako Erresumak buruturiko eskubide urraketa; emakumeak mendekotasunera kondenatzen dituen logika patriarkalen errotzeak; eta beste arazo larriak. Ildo honetan, beharrezkoa zen eta da egun eskubide urraketa honi errotik aurre egitea. Azken bi urteotan, beraz, geure indarren neurrian, manifestazioetara jo dugu, gizarte ekimenetan parte hartu dugu, kanpainak zabaldu ditugu, erakundeetan ekimenak proposatu ditugu;...eta beti ere borroka multzoari -feminista, ekologista, antikapitalista, internazionalista, euskal kulturaren defentsakoak- lehentasun bera eman diogu, *Euskal Herria errotik ezberdina eraikitzeko, mundu errotik ezberdin batean*.

Era berean, baina, geure ustez ezker eraldatzaileak bere helbururantz aurrera egingo badu, bere jardura eta presentzia soziala handitzeaz gain, bere buruaren gaineko etengabeko hausnarketa izan behar duela, politika egiteko eta ulertzeko modu berriak bilatu behar dituela, esandakoaren eta egindakoaren arteko koherentzia mantenduko duen antolatze molde berriak bilatu, erresistentziaren eta eraikitzearen arteko lotura bilatu, hots, epe luzerako agenda emantzipatzaileen eta ziklo politikoen arteko loturak, edota herri mugimenduen eta alderdien artean.

Horrela, Alternatibak ahalegin bereziak eskaini dizkio gai hauen hausnarketari; garbi baitu borroka guztiak barne hartuko dituen agendak eta politikaren kontzepzio berriak soilik lortuko duela euskal ezker eraldatzailearen aldeko zilegitasun sozial zabala eratzeko proposamena. Ildo honetan, hausnarketa jarraierako gune ezberdinak sortu ditugu -taldekako osatze mahaiak- zenbait arlo estrategikoren inguruan -eredu sozio-ekonomiko alternatiboa, feminismoa, erroko demokrazia, nazio auzia eta internazionalismoa -, munduari eta ezkerreari buruzko ikuspegi lasai, sakon, sistematiko eta orokorragoa izateko.

Azken bi urteotan abian jarritako prozesuen emaitza proiektu xumea da, bai, baina nortasun handikoa. Geure erakundetze ahultasunaz jabetzen gara, noski, baita paradigma berria osatzearen arriskuaz edo ezarri ditugun erronka handien zailtasunaz ere. Baina, bestetik, geure ikuspegiaren tinkotasunean fedea dugu, Euskal Herriko proiektu honen beharra duelakoan gaude, eta gure proposamenak erabateko zentzua hartzen duen etapa politikoaren atarian gaudela uste dugu. Egun, publikora ezagutarazten dugu geure burua, denbora aldetik motza baina emankorra den ibilbidearekin: Batetik, *gorputz politiko sendoa* osatu dugu, erreferentziarako baliogarri zaiguna eta esparru ugarian lotzen gaituena, hala nola, ekologian, feminismoan, elikadura subiranotasunean, demokrazia eta boterean, krisitik ateratzeko alternatiba sozialistetan, eta abar. Bestetik, *antolaketa kultura berria* abiarazi dugu -estatutu

berrietan gauzaturik- militantzia demokrazian -ikuspegi feminista eta erroko demokrazia nahasten dituen- oinarriturik. Azkenik, *gizartean dugun presentzia* areagotu eta indartu dugu, eta geure proposamenek eta ekintza zein hausnarketa ildoek egiten gaituzte ezagun.

Halere, lan handia dugu aurretik erakundearen baitan, are handiagoa herri hau eraldatzeko. Baina nortasun hau ardatz hartuta, pilatu dugun gorputz politikoaren laguntzaz, eta ezker harro eta borrokalari batetik onenak hartzeko geure borondatearekin batera -beti ere autokritika eta beharrezko aldaketak harturik-, egoera berri honi ilusioz, itxaropentsu, tinko eta gogoz ekin nahi diogu.

Beraz, gaur hona ekarri dugu orain arteko eztabaida, hausnarketa eta ekintza guztien emaitza, eta epe motz zein ertainerako bidea finkatzeko Alternatibaren izaera zehazten duten ***hiru apustu estrategiko***.

I. ***Euskal Herrirako sozialismo esparruanitza sortzeko apustu estrategikoa***. Gaurtik hasita mendekotasun sistema guztiekiko- patriarkatua, kapitalismoa, desarrollismoa, ustezko demokrazia, arrazakeria- alternatibak sortuko dituen sozialismoaren alde gaude, hau da, borroka guztiak bilduko dituen agenda duen sozialismoaren alde; herri mugimenduak eta mugimendu politikoak banandu eta benetako egitura aldaketak moztu besterik egiten ez duten lehentasun eta fasekako sailkapenik egin gabe. Halaber, agenda hau bertan parte hartu nahi duten hainbat subjektu politikok osatuko dute: langileek, feministek, ekologistek, kultura arloko militanteek, internazionalistek, langabeek, etorkinek,....

II. ***Euskal Herriko ezker subiranistaren aniztasunaren baitan batasunaren aldeko apustu estrategikoa***. Alternatibak ez du inondik inora euskal ezkerreko indar bakar izan nahi, ezta berau hegemonizatu edo beste indarrekin lehiatzeko beste sigla bat gehitu nahi. Aitzitik, euskal ezker subiranisten batasuna aldarrikatzen dugu, proposamen eta kontzepzio anitzak baitaude, baina irizpide komunak baititugu: eskubide guztiak pertsona eta herri guztientzat; Euskal Herriaren autodeterminazio eta subiranotasun eskubidea; egungo mendekotasun sistema konplexua gaindituko duen sozialismo esparruanitza; talde lana eta indar politiko eta sozialen pilatzea bermatuko dituen eredu politiko berriak bilatzea. Jakina, apustu hau epe ertain eta luzeko aliantza estrategikoen gainean eraiki beharko da, unean uneko egoerako analisisetatik haratago joanda.

III. ***Ezkerraren baitako iraultzaren aldeko apustu estrategikoa***. Geure ustez, lehen bi apustuei ezin zaie ekin ezkerreko mugimenduetan nagusi izan diren antolatze logika batzuk ezbaian jarri gabe. *Ezkerra iraultzea beharrezkoa da mundua iraultzeko*, eta alderdi zein herri mugimenduen elkarlana bermatzeko eredu berriak eraiki beharko ditugu; plataforma, sare, aliantza estrategiko horizontal eta demokratikoetarako aukera emateko; militanteen kalitatezko parte hartzeari bide emateko. Honela, erakunde politikoa ez da tresna, baizik eta defendatzen dugun gizarte horren eredu eta isla.

Jakina, *hiru apustuak elkarren osagarri, banaezin eta sinbiotiko dira*, eta Alternatibari lehentasun zaizkio. Ezin sozialismo esparruanitz baten alde egin ez bada beste ezkerrekiko elkarlana bultzatuz, edo lan ildo berriak jorratuz; ezin elkarlanean aurrera egin geure agenda ez bada benetan esparru guztietara modu orekatuan iristen; eta ez digu ezertarako balioko antolaketa eredu berriak izateak, ez bada gehiengo zabalak lortzeari begira jartzen.

Orain, erakunde honek bere egiten dituen **11 konpromezuak** azalduko ditugu -hiru apustu estrategikoen arabera ordenaturik-. Hauek zehaztuko dute Alternatibaren epe labur eta ertainean Alternatibaren ildoak.

I.- EUSKAL HERRIRAKO SOZIALISMO ESPARRUANITZA SORTZEKO APUSTU ESTRATEGIKOA.

1. Erroko demokrazia: kalitatezko parte hartze aktiboa botere kontzeptu berri baten oinarri.

Alternatibak defendatzen duen sozialismoak gehiengo sozial zabalen kalitatezko parte hartze aktiboa bilatzen duen hori da. Hauek euren eredu eta lehentasunak -arloan politiko, kultural, ekonomiko zein sozialean- ezartzeko gai badira bakarrik hitz egin ahalko dugu Euskal Herri alternatibo bati buruz, benetako herri burujabetzaz. Hala, demokrazia eta sozialismoa banaezinak dira, elkarri lotuak. Ez dago sozialismorik gehiengoak politikak erabaki eta osatzetik urrun badaude; ez dago demokraziarik norbanakoaren zein taldeen eskubideek erabateko indarra ez badute, zibil eta politikoez ez ezik, baita ekonomikoez, sozialez eta kulturez ere.

Ildo honetan, Alternatibak bere proposamen politikorako erroko demokraziaren defentsa lehenetsi behar du- Ez dugu, beraz, hainbestean defendatzen agenda alternatibo bat boterera eramatea, baizik eta botere kontzeptua bera eraldatu nahi duen proposamena. Boterea lortu, bai, baina terminoa bera goitik behera eraldatuta, ardatz berri batean ulerturiko boterea bilatuta: kalitatezko parte hartze aktiboa, hain zuzen. Ardatz honen arabera Euskal herriko emakumeek eta gizonek erabaki estrategiak hartuko lituzkete -erreferendumak, demokrazia zuzena-; politikak gehiengo zabalaren parte hartzearekin egingo lirake -parte hartzeko guneak, demokrazia parte hartzailea-; ordezkariak herri borondatearen kudeatzaile besterik ez lirake izango; kontrol publiko eta sozialaren bitartez, informazioa eskuratzeko aukera berdinez egongo lirake; pertsona guztien eskubideak zehatz-mehatz errespetatuko lirake. Horra nahi genukeen Euskal Herria.

Jakina, kalitatezko parte hartzea modu berdinez egin behar da, norbanakoaren egoera kontuan harturik, bakoitzak bere moduan jasaten ditu-eta mendekotasun sistemak, beraz hainbat errealiteri aurre egiteko estrategiak diseinatu beharko dira.

2. Feminismoa interpretazio ikuspegi, ekintzarako irizpide eta subjektu politiko feministarekiko konpromezu bezala.

Alternatiba erakunde feminista moduan antolatu da. Konpromezu honek eduki ugari ditu: Batetik, egungo gizarte eredu eraldatzeko feminismoak estrategikoki duen garrantzia aldarrikatzea. Bigarrenik, praktika feminista erakundearen kultura eta egituraren gauzatuko da. Hots, Alternatibaren ustean sozialismoaren aldeko borroka banaezina du patriarkatuaren aurkako borroka, eta beraren aurkako borroka osotasunean eta sistematikoki hartu beharko da, proposamen publikoetan ez ezik, erakundearen barne bizitzan ere bai. Esan eta egiten denaren arteko zein agenda eta antolaketa kultura eta egituraren arteko koherentzia sendo honetan, feminismoa

nortasun zantzu bihurtzen da. Ez da iraultzarik egongo patriarkaturik badago. Ez da, alternatiba sozialistarik izango erakunde feministarik gabe.

Beraz, borroka soziala den feminismoaren alde egiten dugu, erabaki esparruetatik at geratu diren beste gutxiengo batzuen borrokarekin batera; ekintza eta pentsamendu autonomia den feminismoaren alde, inportanteagoak omen diren beste kontuei lehentasuna ematera makurtzen ez dena. Funtsean, feminismoa iraultzat hartua, indarrean diren ekonomia, gizarte, politika eta kultura egiturak aldatzeko nahitaezko ekarpena, emakume eta gizonen arteko harreman mota berriak sortzeko.

Fokatzeko hauetatik abiatuz, epe labur-ertaineko geure apustuak bi ardatz ditu, biak ala biak beharrezko eta banaezin proiekturako: funtzionamendu eta erakundea, eta agenda politikoa.

Funtzionamendua eta erakundea: Erakunde ireki, berdinzale eta demokratikoa osatzeko konpromezutik, Alternatibak *emakumeen kalitatezko parte hartzea laguntzeko estrategia* abiaraziko du, erakundeko subjektu politiko feminista indartuko duena, emakumeek eta gizonen abiapuntuan dituzten desberdintasunak orekatuko dituena eta kalitatezko parte hartzerako guneak eta metodologiak sortuko dituena.

Aldaketa sistemikorako agenda feminista: Egungo sistema eraldatu gabe emakumeen eskubide sozial eta ekonomikoetan aurrera egite hutsa defendatzen duen diskurtso erreformistak ez bezala, Alternatibak egungo gizartea eraldatzearen alde egiten du, hau baita emakumeen, askoren behintzat, eskubide urraketaren erantzulea. Alternatibak berez uko egiten die egungo Espainiar estatuko zein EAEko gobernuko politikei, egituraren mugetan gorde nahi baitute. Erroko eraldaketa proposamen bat dugu mahai gainean, bost oinarrizko ardatzen inguruan:

1. Feminismo antikapitalista: Sistema ekonomiko neoliberal bat aurrerapen sozialekin bateragarria delako fantasiaren aurka gaude, Dependentsia Legeak eta emakume eta gizonen arteko berdintasun lege organikoekin agerian geratu da. Eraldaketa horren bila, Alternatibaren ildoak prekaritate egoeran dauden emakumeen bat-bateko hobekuntzak ekarriko dituzten aldarrikapen estrategikoena da, era berean egitura aldaketarako akuilu izango badira. Hala, ekonomiaren kontzeptu berria dugu buruan, zainketa bezalako kontzeptuak ardatz estrategikotzat hartuta. Beraz, *kalitatezko zaintza zerbitzu publikoaren* alde egiten dugu egun jasaten dugun estatuaren desmantelazio eta zainketa zerbitzuen pribatizazioari aurre egiteko; *egungo atzerritartasun legearen erreformaren alde*, zainketa lan bat onartzen baitu, emakumeek batez ere egiten dutena eta lan baldintza eskasak baimentzen dituena, emakume ezberdinen arteko hierarkiak eta lehentasunak aitortuz, gainera; *etxeko enpleguaren erregimen diskriminatzailearen erreformaren alde*, etxeko langile guztiei, paperik gabeko emakume etorkinak barne, soldata duina, atsedena eta beste arloetan bezala seguritate soziala izateko eskubidea onartzea dugu-eta helburu.

2. Demokrazia feminista: Egungo sistema sasi-demokratikoetan dimentsio patriarkalak ez die uzten emakumeei erabaki esparruetan parte hartzen, ez baititu parte hartze eta negoziazio sozial edo politikorako eskubideak dituen subjektutzat onartzen. Nahitaezkoa da, beraz, erroko demokrazia feministan oinarrituriko proiektu politikoak boterearen kontzepzio baztertzaile hau alboratzea; eta honen ordeztu boterea ardatz berriekin aztertzea: *barrutik sortutako boterea*, geure buruarekiko ideia eta gure errealitateaz jabetzeko eta hausnarketa egiteko, *boterea norekin*, eraldaketarako erakundeen eta emakumeen arteko elkarlanetik, *boterea zertarako*, aldaketarako elkartasunaren deia eginez, desberdintasunak sortzen dituzten egiturak baztertzeko. Botere berri honek soilik bultzatuko du emakumeak eskubide osoko hiritar bihurtzea.

3. Sexu eta ugalketa eskubideak: Alternatibak hauek eskubide funtsezkotzat eta unibertsaltzat jotzen ditu. Ugalketa osasunari -abortu libre eta askea erabakitzeke emakumeen eskubidea kasu- ez ezik, nor bere sexualitatea askatasunez, mehatxurik eta bortxakeriarik gabe bizi ahal izateko eskubideari buruz ere ari gara.

4. Emakumeen aurkako bortxa: Bortxakeria matxistak emakumeak hiltzen ditu, emakume izatearen arrazoi hutsagatik. Baina bortxakeria hau izebergaren punta besterik ez da, emakumeen aurkako indarkeria modu askotan ematen da. Emakume guztiek jasaten dute indarkeria euren bizitzan zehar: ekonomikoa, sexuala, psikologikoa, sozio-kulturala. Errealitate hau salatu nahi dugu eta estatuari exijitu emakumeen aurkako indarkeriaren edozein adierazpen.

5. Estatuaren laiotasuna: Estatu laikoak oinarritzko baldintza du giza eskubideekiko begirunea, beraz giza eskubideak eta emakumeen askatasuna. Estatu eta elizen arteko benetako banaketa exijitzen dugu, inolako kredo edo sinesmenek ez dezala eragin arlo politiko edo zibilean. Honek, besteak beste, Eliza Katolikoak duen lehentasuneko tratua bertan behera uztea eta eskola publikoan erlijioak alboratzea esan nahi du.

3. Eredu sozioekonomiko alternatibo eta sozialista.

Egungo sistemaren krisi testuinguruan, non kapitalismoa ez den gai sortu dituen arazoak konpontzeko, eredu ekonomiko eta sozial alternatiboa abiarazteko premia are handiagoa da. Beraz, Alternatibak, euskal ezker subiranistaren zati den heinean, egungo sistema erreformatze soileko edozein ekimeni uko egiten dio, eta erabateko eta erroko gaintzea defendatzen du -gero eta zabalduago daude kapitalismoaren ondorioak langabezian, ingurugiroaren deuseztean, bazterketan, eskubide urraketan, esplotazioan,...-, eta alternatiben eraikuntza aldarrikatu nahi du.

Modu honetara, inolako nazio eraikuntza prozesuk ezin du albo batera edo beranduagorako utzi Euskal Herriko sistema kapitalistaren erabateko eraldaketa. Langabezia datuek (170.000 pertsonatik gora EHn), prekaritateak (biztanleria aktiboaren %20 baino gehiago), bazterketak (auskalo), energia kontsumoak eta egitura erraldoien aldeko egungo politikak behar hau berebiziko premia bihurtu dute.

Honegatik, egungo testuingurua errotik eraldatuko duen proposamena dugu, eskubideak babestu eta gehiengoaren borondatea betearaziko duen euskal marko baten alde egiteko. Honakoak ikusten ditugu beharrezko :

- *Sektore publikoa indartzea*: politika publikoen -hezkuntza, osasuna, zainketa, etxebizitza- sustapena, eskubideei buruz ari gara, ez pribilegioei buruz; eta arlo publikoa sektore estrategikoetan funtsezko aktore dela onartzea -banka, energia, komunikazioak-. Horretarako beharrezko dira zerga sisteman aldaketak -askoz ere progresiboagoa, gutxiago ordain dezala gutxiago duenak, gutxiago irabazten duenak, gutxiago kutsatzen duenak eta gutxien alferrik galtzen duenak- eta nazionalizazioak neurri politikotzat hartzea.

- *Ekonomia ekologizatzea* (garapen iraunkor kontzeptua gainditzea). Energia aurrezte eta energia berriztagarriak sustatzea energia sistema publiko baten bitartez. Zentral termikoak bertan behera uztea, Garoña ixtea eta ziklo konbinatuko zentralak eraikitzeari uztea. Energia eredu berrirantz jotzeko ez da nahikoa energia berriztagarrien ekoizpena handitzea, nahitaezkoa da era berean kontsumoa murriztea eta energia sektorea irabazi pribatuetatik aldentzea. Garraio deuzeslearekin bukatzea: moratoria bial berriak zentzurik gabe egiteari, AHT geldiaraztea eta garraio publikoari zein tren sozialari bultzada handia ematea.

- *Enpleguaren kopuru eta kalitatea handitzea*: enplegua banatzea soldata murrizketarik eman gabe, kapital errentek langileen soldatekiko diferentzia azken hamarkadetan etengabe eta izugarri igo baitute; Lanbide Arteko Gutxieneko Soldata 1.200€ra igotzea, sektore ahulenek babes handiagoa izateko; erretiroa 60 urtera jaistea, zerga sistematik ordainduta bada ere. Espainiar Erresuman bizi den egoeran, gogora dezagun nagusi dela Europako gazte langabezia tasan, egokiena erretiro adina aurreratzea da, inoiz ez atzeratzea, gazteek lan baldintza duinak lortzeko errazago izan dezaten. Gainera, beharrezkoa da erretiroak kalkulatzeko sistemak aldatzea -kotizatzeke gutxieneko urte kopurua, azken urteei emandako lehentasuna- hobeto egokitu dakion pertsona bakoitzaren errealitateari.

- *Beste ekonomiari, sozial eta solidarioari, babesa ematea*, parte hartze aktiboan, elkartasunean, berdintasunean, barneratzean eta feminismoan oinarrituriko eremuan aurrera egiteko, helburua pertsonen betebeharrak asebetetzea izanda.

- *Elikadura subiranotasunari babesa ematea*: Elikadura subiranotasunaren aldeko politika aktiboak, egungo eredu agroindustrialak ordezkatuz: ekoizpen bide agroekologikoak, nekazal eta abeltzain ekonomiak, tokian tokiko merkatuak eta ekoizle eta saltzaileen arteko zirkuitu laburrak babestea. Natur baliabideen kudeaketa planifikatua, kolektiboa eta soziala: ura, lurra, haziak,... Transgenikoen erabilera debekatzea eta transnazionalen aurka borrokatzea.

4. Euskal Herriarentzako subiranotasuna eta autodeterminazio eskubidea.

Euskal subiranismoaren definitzerako eta Euskal Herriaren autodeterminazio eskubidearen aldeko gehiengo sozialak osatzeko garai gakoa dugu honakoa. Batetik, garbi geratu da Gernikako Autonomia Estatutua eta Foru Hobekuntza legeak epez pasa diren tresnak direla subiranotasun politiko osoa espainiar estatu boterei ematen dien administrazio absurdu baten baitan. Bestetik, Espainiar Legebiltzarrak Euskadiko Estatutu Politiko berriari ezarritako betoa eta Auzitegi Konstituzionalak Catalunyako Autonomia Estatuaren inguruan emandako sententziak garbi uzten dute neoestatutismoak eta espainiar estatu barneko ildo deszentralizatzaileak ez dutela biderik. Ipar Euskal Herrira begiratuz gero, egun duen administrazio distortsioa

gainditu beharra eta zentralismo frantziarraren asimilazio politikak geldiarazteko premia nabari da.

Etengabeko eboluzioan eta aldaketan izango den Euskal Herri subiraua da Alternatibaren nahia. Herritarren nazio bat herritarrak edozein nazio eraikuntzaren oinarri bihurtzeko gure proposamenaren fruitu. Euskal Herria bere herritarrak izatea erabakitzen duguna da eta izango da. Errealitateak aldakorrak direla eta euskal ezkerak proiektu barneratzailea eta gurean bizi diren beste identitate nazionallekiko begirunetsua izan behar duela kontuan harturik, gure autodeterminazio eskubidearen eta bere praktikaren aldeko jarrera berresten dugu.

Geuri, euskal gizarteari, dagokigu erabakitzea nola eta zein modutan harremanduko garen beste herri eta nazioekin. Herritarren iritzia oinarri duen botere kontzeptu hau, demokraziaren sakontasun hau, gure herriaren nazio eta gizarte eraikuntzaren nahitaezko osagarri funtsezko bilakatu behar dugu.

Euskal ezker soberanista eta alternatiboak proposamen propioa izan behar du, zeinu ezberdinetako hainbat nazionalismok dituzten ikuspegi eta diskurtso chauvinistetatik eta ezkerreko ustezko kokalekutik geure gizartea eraikitzeari uko egiten dioten espainiar estatu nazionalismoa indartu eta gizarteari erabaki eskubidea kentzen diotenetatik urrun.

Ezker subiranista berri eta alternatiborako geure proposamena lau funtsezko konpromezutan zehazten da:

- *Autodeterminazio eskubidearen defentsarekin* bat egiten dugu. Konpromezu honek Euskal Herriari bere status politikoa demokrazian aukeratzeko gaitasuna onartzea dakar, determinazio askea demokrazian oinarritua, beraz nahitaezko litzatekeen herri kontsulta batekin.
- Benetako subiranotasuna, erreformismo neoestatutariotik eta konpetentzia trukatzetik urrun, gauzatu ahal izateko *aliantza politiko estrategikoak lotzea eta herri mobilizazioa berraktibatzea beharrezkoa da*. Horregatik, premiazkoa da euskal ezker subiranista irizpide, formula eta printzipio berrien bitartez indartzea.
- *Nazio eraikuntza eta gizarte eraikuntza prozesu bateratu eta banaezinak direla* uste dugu. Geure konpromezua borroka esparru guztiak modu orekatuan bilduko dituen agendaren bitartez Euskal Herria herri mugimendu zabala osatzerantz doa. Ez dute balio marko juridiko eta politikoez ez badituzte egungoen eduki arras ezberdinak bere egiten. Beraz, kapitalismoaren, patriarkatuaren, arrazakeriaren aurkako borroka nazio eraikuntzari lotuak izan behar zaizkion borrokak dira.
- *Internazionalismoa gure izaera ikurra da*: herrien eskubideen eta beren emantzipazio mugimenduen defentsa. Sistema errotik aldatu gabe nazio eraikuntzarik ezin daitekeen modu berean, ezin posible izan herriekiko elkartasuna eta emantzipazio mugimenduak gabe ere. Horrela, internazionalismoak ez du gurearen moduko egoeren aurrean taktikoki

babesturiko gauza izan behar, baizik eta globalizazio neoliberalak nahitaezko egiten duen erantzun bat.

5. EHrako bakegintza eta normalizazio prozesuaren defentsa.

Alternatibak argi eta garbi egiten du Euskal Herrian bakegintza eta normalizazio prozesu baten alde, bizi dugun egoera politikoaren baitan geure alternatibak osatzeko funtsezko bihurtzen da gure jardun politiko eta sozialean.

Ezker eraldatzaileak, Alternatibak barne, jakina, abiarazi berri den prozesuan protagonista izan behar dela uste dugu. Ezkerreko pertsonei besteei adina ala are gehiago axola zaigu Euskal Herrian bake eta konponbide demokratiko testuingurua sortzea.

Alternatibak defendatzen duen erroko demokrazia kontzeptuan ez dago tokirik norbanakoaren eskubideei eraso egiten dien indarkeriarentzat. Indarkeriak eta herritarrengan sortzen dituen ondorioek (samina, gorrotoa, beldurra,...) defendatzen dugun gizarte eredutik aldentzen gaituzte, gerturatu beharrean.

Geure esku, gizarte osoaren esku dugu, indarkeria politikoaren zikloa indarkeriarik gabeko bat bihurtzea, *eskubide guztiak pertsona guztientzat Euskal Herri osoan leloa aintzat hartuta.*

Jakitun izan behar dugu bake justu eta iraunkorrerako bidea luzea dela, pausu jarraiak emanez, atzera eta aurrerekin, lan handikoa eta herriak parte hartzea bermatuko duena, bere eskubideen defentsaren eta mobilizazioaren bidez.

Bake eskenatoki berrian eta konponbide demokratikoen fasean alde guztiek eurek ere irabazi dutela ulertzen duten horixe da bake justu eta iraunkorra. Beraz, estatu botereek maltzurki helarazitako dialektika -gatazka amaitzeko garaituak eta garaileak behar dira egon- gaingitu egin behar dugu.

Baina, honekin batera, nahitaezkoa da irekitzen ari garen aro itxaropen piztaile honetan herritarrak izan gaitezen motore eta aktore nagusi. Gizarteari protagonismo hori kendu nahi dion edozein bake prozesu porrotera kondenatua dago beste behin ere, Argel (1989) edo Loiola (2006) zeuden bezalaxe. Bakeak lorpen kolektiboa behar du izan, eta hala nabaritu behar du jendeak, ez abangoardia batzuen arteko negoziazio prozesu ilunaren emaitza.

Alternatibatik euskal gizarteari zabaltzen ari zaion itxaropen aroa egonkortzeko eta bertan sakontzeko pausu batzuk beharrezkotzat ditugu:

- ETAk su-eten iraunkorra aldarrikatu behar du, nazioarteko erakundeek bermatu ahaliko dutena, bere jardun armatua behin betiko utzi baino lehen.

- Nahitaezkoa da pertsona guztiei giza eskubidea zein eskubide sozial eta politiko guztiak itzuliko dizkien geruza demokratikoa finkatzea. Egungo eskenatokitik - pertsona mehatxatuak, torturak, atxilotze sistematikoak, manifestazio debekuak eta aukera politikoaren ilegalizazioa- jauzi egin behar dugu guztiei eskubideak bermatuko zaizkien eta *dena ETA da* logika maltzurra bertan behera geratuko den batera iristeko.

- Bizi izan dugun eskenatoki luzea atzean utzi behar dugu: atentatuak, torturak, hilketak, bahiketak, presoen sakabanaketa, mehatxuak, alderdi politikoak legez kanporatzea, kale erasoak, komunikabideak ixtea, manifestazioak debekatzea, eta alde ezberdinek ideia politikoei egindako mota ezberdinetako erasoak (presioa, atxiloketak,...). Horren ordeztu pertsona guztien iritzia eta lan politikoa bermatuko dituen eskenatokia nahi dugu.

- Espainiako Erresumako gobernuari exijitu egin behar diogu presoen aurkako bere jardun antidemokratikoari utz diezaiola, dena kriminalizatzeko nahia albo batera utz dezala, hots, estatuaren auzitegi tresnak zentzugabe erabiltzeari euskal gizartearen zati batzuen aurka; funtsean: arazoaren zati izateari utzi eta konponbidearena izan dadila.

Alternatibatik, beste agente politiko, sindikal eta sozialekin batera, norabide honetan aurrera egitea lortzen badugu, laster konpontze fase batean sartu beharko dugu, zeinetan geure ustean gaiok azaldu beharko diren:

- Elkarrizketa, negoziazioa eta euskal gizarteak libre eta demokratikoki adieraztiko borondatea errespetatzea lorpen kolektiboa da, denok jasan dugun porrot herrenkadaren aurkako moduan.
- Gai politikoaren eztabaida bide baketsu edota erakunde, gizarte, desobedientzia zibil edo herri presioaren bitartez konpontzeko konpromezua. Beraz, edozein indarkeria mota erabiltzeari uko egite argi eta tinkoa, izan diren indarkeria ugariak gizarte honetan eragin dituzten biktimekin egin beharreko elkarulertze eta berradiskidetze lanarekin batera.
- Akordio politikoak lortzeko negoziazio prozesuari mugak eragile politiko, sozial eta sindikalek jarri beharko dizkiote. ETA eta Espainiar estatuari armak uzte, desmilitarizazio eta preso gaiak soilik legozkieke.
- Balizko akordioaren edukiak eta herriaren normalkuntza politikotik eratorritako etorkizuneko gaiak etengabe eskaini beharko zaizkio ezagutzera eta onartzera euskal gizarteak aske eta demokratikoki adierazitako borondateari.

6. Konpromezu internazionalista.

Sistema aldatzeko borrokaren arlo ezberdinak banatu ezin diren modu berean, beharrezkoa da helburua lortze aldera mugimendu, erakunde eta herri ezberdinen ahaleginak uztartzea. Horrela, ezin dugu tokian tokikoa, nazionala eta globala bereizi, arlo hauek guztiek tokia behar dute gure agenda politikoan.

Nazioarteko esparruan denoi eragiten diguten gero eta erabaki gehiago hartzen ari dira, eta beharrezkoa da logika antidemokratiko hauei guztiei erantzun artikulatua ematea. Ildo honetan, estrategikoa da lan honi ahalegin zehatzak ematea, europar esparruan ez ezik Hegoaldeko pobreturiko herrialdeetan aliantzak bilatzeko.

Pertsona eta herri guztien patua egun indarrean den ereduari alternatiba osatzeko gaitasunaren mende dago; beraz, Euskal Herria bera aldatzeko internazionalismoa eta elkartasuna nahitaezko ditugu.

7. Arrazakeria eta xenofobia deuseztea.

Globalizazio neoliberalak garaturiko eta garapen bidean dauden herrialdeen arteko desorekak areagotu ditu, baina baita europar gizarteak eta euskaldunaren artean ere. Halaber, ongizate estatua murrizteko logika neoliberalak eta ekonomien atzerapenak - langabezia eta prekarietatea hazi direlarik- agerian utzi du pertsona migratzaileei krisi ekonomikoaren zama leporatzeko saiakera, errudun egin nahi izan dituzte, eta herritarren artean aurreiritziak indartu eta jarrera arrazista eta xenofoboiei bide eman zaie.

Horrela, ekonomia hazkunde zalantzarri garaietan etorkinei buruzko diskurtso nagusia utilitarista izan da oso, etorkinak kualifikazio gutxieneko lanetarako eta ongizate estatuak eskaintzen ez dituen zainketa zerbitzuetarako esku-lan merketzat besterik ez dira hartu. Krisiarekin, biztanleriaren esparru batzuek etorkinak enplegu eta prestazio sozial urriak lortzeko lehiakidetzat ikusi dituzte eta esparru instituzional eta politiko batzuetan orokortu egin da hautaturiko etorkinei buruzko diskurtsoa eta lanik gabeko etorkinak kaleratzeko gogoa, maltzurki nahastuz migrazio prozesuak eta segurtasun-eza eta delinkuentzia.

Beraz, arrazakeria kontzeptuak indarrean dirau oraindik. Jatorri genetikoak ezarritako talde itxi eta hierarkiatan erabat bereizitako gizateriaren ideiak gainditua badirudi ere, egun antzeko prozesuak bizirik daude: talde batzuek besteekiko duten "nagusitasun naturalak" barneratze eta eskusio diskurtso bati utzi dio lekua, talde ezberdinen arteko patrimonio kulturala begiratzen duena. Hau da, gizakien arteko ezberdintasunak arlo kulturalan ezarri nahi dira, kultura jatorriarekin loturik, "etnifikatu" egin nahi dira, ezberdintasunaren ikur aldaezin bihurturik, lurralde berean bizi diren pertsonen arteko ezberdintasun eta desoreken aitzakia izateko. Euskal Herriaren kasuan, gainera, prozesu honek berezitasunak izan ditzake, jatorrizko izaera galtzeko beldurrak jarrera xenofoboetara bultzatzea dezake eta.

Alternatibatik nahitaezkoa zaigu herritartasun unibertsalaren kontzeptuari babes aktiboa ematea, hau da, pertsonak gizaki huts izateagatik eskubide eta betebeharre lotuak zaizkiela esatea. Ondorioz, ezin zaie eskubide horietako bat bera ere kendu, jatorri, arraza, sexu, etnia edo nazionalitate arrazoiak direla eta, pertsona guztiak gara arduradun gizaki guztiek eskubide guztiak izan ditzaten.

Esandakoak berekin dakar euskal izaera eta kultura modu aldaezinean ez ulertzea, baizik eta eraikiz joan den ondasun kolektibo bat dela esatea, heterogeneoa barrutik eta denen emaitza dena. Sustapen politikoa behar duen kultura bat, herritarren gehiengoa errespetatuta kudeatu behar dena, ez dena euskaran amaitzen baina euskarak gune substantziala duena, ahaztu gabe gaztelaniaz eta frantzieraz adierazten den euskal kultura ere badela eta berdintasuneko elkarrekin bizitze batean eman behar dela, Euskal Herrian bizi garenon artean dena delako jatorria izanda ere.

II.- EUSKAL HERRIKO EZKER SOBERANISTAREN ANIZTASUNEAN BATASUNERAKO ERRONKA ESTRATEGIKOA

8. EHko ezker soberanistan aliantza estrategikoak eraikitzea.

Sozialismo esparruanitzaren agenda ez da inoren jabetza pribatua, eta Alternatibaren logikan ere ez da sartzen, are gutxiago, hegemonizatzea. Aitzitik, Euskal Herria errotik aldatzeko proposamen batean aurrera egiteko anitzen arteko elkarketaren alde lan egin behar delakoan gaude, irizpide komun batzuen baitan agenda integratzailea osa dezakegunon arteko elkarlanaren alde beraz. Esan moduan, Alternatibak berezko izaera du, berritzailea, etengabe osatzen ari dena, eta beharrezko eta baliotsutzat jotzen ditu beste euskal ezkerren nortasun eta erronkak.

Horrela, Alternatibak ez dio beste siglekiko lehiari ekin nahi, ezta ezkerren banaketa eta lotura-eza areagotu. Aitzitik, zilegitasunez eta behar den tinkotasunez euskal eskuinari -alderdien esparruan PP, UPN, PNV, H1! eta PSE-EEk osatzen dutena- zein Espainiar Erresumatik prestatuturiko norbanako eta gizarte eskubideen urraketa aurre egingo dieten indar metaketaren alde egiten dugu.

Ildo honetan, pobrezia, bazterketa, mendekotasuna eta giza eskubideen aurkako erasoak sortzen dituzten status quo-aren defendatzaileei aurre egingo dien euskal ezkerria sortzea helburu estrategiko oinarritzakoa da Alternatibarentzat. Beraz, gure ahalegina epe luzearako *aliantza estrategikoak* sortzera bideratu nahi dugu, alderdi politiko zein herri mugimenduek, bakoitzak bere nortasun eta antolakuntza izaeratik, parte hartuko duten aliantza estrategikoak.

Egungo testuinguruan ilusioa pizten duen eskenatokia dugu aurretik, helburu honen benetako gauzatzea ekar lezakeena, ezkerreko pertsona askoren eskaera historikoa. Bistan da ezberdintasunak ditugula -bakoitzak bere helburu propioak ditu- aniztasuna balioa baita, ez muga bat; baina garrantzitsua da era berean une historiko hau ulertzea, eta euskal gizarteari erantzun bateratua eskaintzea, identifikatzen gaituzten eta nor garen egiten duten balioetan oinarrituta. *Eskubide guztiak euskal pertsona guztientzat, eskubide guztiak Euskal Herriarentzat* esaldiak labur lezake, hots: EH naziotzat onartzea, bere subiranotasunaren eta autodeterminazio eskubidearen eguneroko jardunaren babesetik; egungo mendekotasun sistema konplexua garaituko duen sozialismo esparruanitzaren alde egitea -eskubideen, erroko demokraziaren, feminismoaren, ekonomia eredu sozialistaren, internazionalismoaren babesetik-; euskal eskuinarekiko -PP, UPN, PNV, H1! eta PSE-EE- lehia, beti ere bide baketsu eta demokratikoak bitarteko; eta sarean eginiko lana zein indar politiko eta sozialen metaketa bermatuko dituen eredu politiko berrien bilaketa.

9. Euskal ezkerrearen parte hartze giltzatua 2011ko udal eta foru hauteskundeetan EAEn

Aurreko atalean aipatu moduan, Alternatibaren apustua agenda komun baten helburupean lan egin nahi duten agente ezberdinen arteko aliantza estrategikoen aldekoa da. Halere, aliantza hauek gaur egunetik hasi behar dira osatzen, eta udal eta foru hauteskundeetan -ikuspegi taktiko zein, batez ere, hauteskunderi begirako

ikuspuntutik- aniztasuneko batasun hau indartzeko aukera ikusten dugu, ezkerreko jendea krisi garai honetan ilusionatzeko aukera, eta beheko mailatik, lokaletik, beste ikuspegi batzuekin lanean hasteko aukera.

Ondorioz, hauteskundeetan parte hartu egingo dugu, hauek geure erakunde mailako garapenerako aprobetxatuz, beti ere epe luzeko estrategiak indartu nahian eta arreta batzuekin, aurreko Alternatibako Biltzarrean onartuak eta geure web orrian publikoak direnak.

Beraz, estrategia bikoitza mantenduko dugu: *udal arloan*, posible den heinean ezkerreko indarren metaketa bilatuko dugu, udal guztietan aliantza bera izan behar gabe; *föru aldundi mailan*, aliantza estrategikoak osatze aldera, hiru herrialdeetarako aliantza bakarra bilatuko dugu, ahalik eta bateragarriena, aipatu helbururantz bidean jarriko gaituena, aipatu elkartzeko irizpideak oinarri hartuta.

III.- EZKERRAREN BAITAKO IRAULTZAREN ALDEKO JARRERA ESTRATEGIKOA

10. Borrokarako ezkerren eta alternatibak eraikitzearen aldeko konpromezua.

Alternatibak berebiziko garrantzia ematen dio Euskal Herriko ezker soberanista osatzeko sozialismo esparruanitzaren agenda gidatu behar duen subjektuari, ereduari eta antolaketa kulturari. Hala, erroko eraldaketarako eta egun indarrean diren mendekotasun sistemak gainditzeko agendak ezker berritik sortu behar du; borrokarako ezkerria, militantea, kalekoa eta eredu ematearen bitartez parte hartzea eta aktibazio politiko zein soziala sustatuko dituena.

Borrokarako ezkerria hertsiki lotua zaio erresistentzian ez ezik alternatibak osatzean diharduen ezkerriari. Beraz, sozialismoa kapitalismoaren ondorengo fasea soilik delako eta dagokion garaian sortuko den paradisu urruna delako ideia bertan behera utzi nahi dugu. Sozialismoa, hemen eta egun eraikitzen den estrategia politikotzat dugu, ez soilik etorkizun hurbil edo urruneko gauzatat. Geure helburua, hala, prozesu, ekimen eta ikuspuntu sozialistak indartzea, lotzea, biderkatzea eta bistaraztea izango da, hots, indarrean den ereduarekiko alternatibak osatzen joatea, oraina eta geroaren arteko dialektikan, egindakoa eta proposaturikoaren artekoan.

Beraz, sozialismoa ez da guretzat bat-batean etorriko zaigun zeruko oparia, baizik eta egunerokotasunetik eta atzera pausorik gabe denon artean sortzen dugun errealitatetzat dugu, egungo mendekotasun sistema anitzari nagusitasun esparruak lehiatuko dizkiona, horretarako arlo guztietan, gaur eta hemen hasita, egitura eraldaketa baten mesedetan borrokaturik, berdintasun, justizia eta norbanakoen, gizarte eta natur eskubideak kontuan harturik.

11. Militantzia demokrazian oinarrituriko kulturarekiko konpromezua.

Alternatibak aurrebaldintza garbitzat du proposaturikoaren eta egindakoaren arteko koherentzia, oraina eta geroaren artekoa, zilegitasun soziala lortzeko. Gainera erroko demokrazia sozialismoari banaezin zaion kontzeptua dela uste du. Bi ildook nahastearen ondorioz, Alternatibak berebiziko garrantzia ematen dio erakundearen baitan kultura demokratikoa garatzeari.

Alternatiba, aldiz, erakundearen ikuspegi utilitaristaren aurka dago, eta hitzak eta ekintzen arteko koherentziaren alde egiten du, bai kanpora begira zein barrura begira. Beraz, erakunde politikoa ez da soilik helburu baten aldeko bitarteko bat, baizik eta *Alternatibak eskaintzen duen gizartearen eredu txikia* behar du izan. Hortaz, erakundea bera eraikitzen ari den alternatiba bat da, erronka bat, helmuga sozial eta politikoan dauden logika eta proiektuak barneratuko dituen.

Militantzia Demokraziarekiko geure konpromezua berretsi nahi dugu, estatutuen arabera, feminismitik eta erroko demokraziatik, Alternatibaren kultura eta antolaketa egitura definitzen dituen kontzeptuarekin. *Militanteen (emakumezkoen zein gizonzkoen) kalitatezko parte hartze aktiboa lehenesten duen antolaketa* eredu da izen honekin ulertzen duguna. Definizio honetatik hiru indar-ideia atera ahal dira, Alternatibaren barne bizitza ulertzeko baliagarriak direnak:

1. *Antolaketa egiturak* militantziaren kalitatezko parte hartzea ematea bermatuko du: funtzio eta betebeharren inguruko organigrama garbi eta gardena marraztuz, demokrazia zuzena eta emakumeen parte hartzea sustatuz, erabakiak hartzean horizontaltasuna bermatuz; eztabaida egiturak eta taldekako osatze organoak sortuz: organoen arteko orekak mantenduz, beti ere biltzarraren menpe; militanteen eskubideak defendatuz.

2. *Antolatze kulturak* militanteak zaintzea sustatuko du, eta parte hartzea benetan kalitatezkoa izan dadin neurri egokiak hartuko dira: informazio sistema gardenak ezarriz; formakuntza estrategia jarraia mantenduz; parte hartze metodologiak sustatuz; emakume eta gizonen arteko ardura elkarbanatuak bermatuz.

3. Militanteak antolaketa egitura eta kultura berriez baliatuko dira eta *kalitatezko parte hartzeari edukia emango dio*, bere eskubidea ez ezik bere betebeharra dela ulertuta. Hala, militanteek konpromezua hartzen dute ez delegatzera jotzeko, baizik eta proiektu politikoaren gauzatzea arlo guztietan bere gain hartzera.